

EKONOMIA, SOLIDARIOA IZANGO DA FEMINISTA BALDIN BADA



Borroka feministen leloetako bat “*patriarcado, capital, alianza criminal*” da, eta martxoak 8 honetan, hain zuzen ere, bizitza prekarizatzeko bi sistemak beraien artean laguntzen direla salatu nahi dugu.

Sistema neoliberalak, estatu eta herrialdeen subiranotasuna nazioarteko korporazio handien interesen menpe jarri nahi du; enplegu, zerbitzu publiko, osasun eta ingurumenerako suntsitzailak diren ondorioak dituzten TTIP eta CETA moduko nazioarteko hitzarmenak sustatzen ditu; aldaketa klimatikoaren azken gailurreko akordio eskas eta etsigarrietan eraginez, planetaren jasangarritasunari erasotzen dio eta, batez ere globalizazio neoliberalaren ondorioetatik ihes egiten duten errefuxiatuen eskubideen urratzea sustatzen du.

Etengabeko eraso guzti hauek, kapitalismoak biziaren gerra deklaratu duela agerian jartzen dute. Baina ez dago bakarrik, patriarkatuak kapitalismoa laguntzen du bizitzarekin bateraezina den sistema sozioekonomiko bat mantentzen.

Ekonomia Solidarioak, pertsonen biziari, beraien beharrezanezi, lan eta gaitasunezi balioa emanez, logika kapitalista apurtzeko helburuarekin jaio zena, ikuspegi kritiko feminista gaineratu behar du eredu sozioekonomiko hau bidezkoagoa eta zuzenagoa den beste batean bihurtu nahi baldin badu.

Martxoak 8aren inguruan, Emakumeen Nazioarteko Eguna, komunikabide ezberdinetan, oraindik gaur egun emakumeek pairatzen dituzten diskriminazioak erakusten eta, batzuetan, salatzen dituzten hamaika artikulua daude. Egun honetan, komunikabide handiek ere bat egiten dute eta egun batez, berdintasunaren ameskeria apurtu egiten dute, berdintasuna ekintza burutu bat delaren, emakumeek, espazio publikoan parte hartzen ez badute eta botere-kota gehiagora heltzen ez badira, ez dutelako nahi delaren eta esparru ekonomikoan, langabezi eta prekariedade egoera mundu guztiari berdin eragiten diolaren ideian mantentzen gaituena.

Berdintasun itxura faltsu hau, borroka feminista geldiarazteko patriarkatuaren estrategia bat da, prekariedade emakume izena baitu eta, baita, aurpegi ezberdin asko dauzka. Diskriminazioek ez dute eragin berbera pertsona guztiengan. Generoarekin erlazionatuta dauden beste faktore batzuk existitzen dira, hala nola, klase soziala, adina, jatorria, sexu orientazioa, dibertsitate funtzionala edota atzeritartasun egoera administratiboa, eta hauek, diskriminazio ezberdinak gurutzatzen dituen zapalketa sistema bat eratzen dute.

Ekonomia Solidarioa ez da autokonplazentzia eta berdintasun itxura faltsuaren sarean jausi behar.

Honela, emakumeei merezi duten protagonismoa eman nahi izanez gero, euren parte-hartzea eta jabetasuna sustatzen duten neurriak hartu behar ditugu. Nahiz eta ekonomia solidarioan emakume langileen portzentajea handiagoa izan, erabaki esparruetan oraindik ez da berdintasuna lortu.



Sarearen baitan, egite eta pentsatze modu berriak barneratzen dituzten eta gure erakundeetan existitzen diren genero ezparekotasunak ezabatzen doazen genero ikuspegia duten erakunde-aldaketa prozesuak sustatu.

Pertsonen aniztasuna kontutan izan, ezberdintasunak onartuz eta errespetatuz, haien diskriminazio posizioa indartu dezaketen errealitate ezberdinak identifikatu.

Kontsumo eta ekoizpen eredu jasangaitza zalantzan jartzen duen eta emakumeenganako eta ezarritako genero-rolari moldatzen ez diren pertsonenganako diskriminazioa handitzera

laguntzen duten eta indarkeria matxista sorrarazten duten praktikak identifikatzen eta suntsitzen dituen Merkatu Sozial bat eraiki.

Ekoizpenezkoak soilik ez diren bestelako lan eta eginkizunak ikusarazteko gai den Merkatu Soziala, hauek gabe ezingo baikenitu gure produktu eta zerbitzuak eskaini. Behar-beharrezkoak diren baina normalean ezkutuan dauden eta zainketarekin, hau da, pertsona eta entitateen ongizatearekin harremana duten lanak: garbitu, elikatu, jolastu, jaso, lagundu, ikasi, parte hartu, kooperatu eta, nola ez, amestu.

Ekonomia Solidarioa emakumeen beharrizan praktikoez arduratu behar da euren interes estrategikoak ahaztu barik, eta zentzu zabalean bizitzaren jasangarritasunaren alde lan egiteko, mugimendu feminista eta ekologistarekin aliantzak bilatu behar ditu, sistema kapitalista heteropatriarkala ezberdinkeraren gain eraikitzen dela agerian utziz eta ekonomia bidezkoago eta jasangarriago baten eraketan ekarpenak egiten jarraituz.

